



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

OINARRI ESPEZIFIKOAK, ARABAKO KALKULU GUNEA AB – CENTRO DE CÁLCULO DE ÁLAVA SA FORU SOZINETATE PUBLIKOAN ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARI (AOT) LANPOSTU BAT (PERTSONAK ETA TALENTUA) BETETZEKO LANGILE LAN KONTRATUDUNAREN HAUTAKETA ARAUTZEN DUTENAK

(deialdiaren kodea: 2023003)

LEHENENGO OINARRIA.- LANPOSTUKO EGINKIZUNAK:

Erakunde Administrazioa eta Giza Baliabideetako Alorrean integratuko da, alorreko koordinatzailearen eta, aldi berean, alorreko arduradunaren menpean.

Hasierako eginkizunak honako hauek izango dira:

- Nominak egiteko beharrezko dokumentazioa prestatzea.
- Dietak eta bidaia gastuak.
- Kontratazioa, Gizarte Segurantzako altak eta bajak.
- Aseguru sozialak sortzea, berrikustea eta likidatzea.
- Nominak egitea, kalkulatzea eta ordaintzea.
- Hautaketa prozesuak izapidetzen laguntzea.

Enpresaren ezagutza funtzionalean sakondu ahala, pertsonak kudeatzeko beste eginkizun batzuk egingo ditu, eta horretan sakontzen joango da denborak aurrera egin ahala. Eginkizun horiek komunikazio-, negoziatze- eta lankidetzazko gaitasunak garatzeko aukera emango diote, besteak beste. Hasieratik langileen garapen profesionalaren esparru guztietan parte hartzea izango du helburu.

- Prestakuntza-beharren inbentarioan laguntzea, arloen eta lanbide profilen arabera informazioarekin.
- Hautaketa epaimahaietan titular moduan parte hartzea.
- Langileen lanbide profilen inbentarioan eta ebaluazioan parte hartzea.
- Langile bakoitzaren karrera profesionalaren garapen optimoaren jarraipenean parte hartzea.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Langile berriak sartzea kudeatzea.

BIGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:

Hautagaiek posta elektronikoz 2023003@qualisconsultores.es helbidera bidali beharko dituzte oinarri orokorren 3.1) puntuan eskatzen diren agiriak (bidali beharreko mezuak 30 MB baino gehiago baditu, hainbat mezu bidali beharko dira, onartutako muga gainditu gabe haietako batean ere).

Eskaerak aurkezteko epea 2023ko uztailaren 21ean amaituko da.

HIRUGARREN OINARRIA.- ESKATUTAKO TITULAZIOA:

- Lan Zientzietako lizentziatura, Lan Harremanetako eta Giza Baliabideetako gradua edo baliokidea.
- Zuzenbideko lizentziatura, edo gradu baliokidea.
- Ekonomia eta Enpresako lizentziatura edo gradu baliokidea.
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako lizentziatura, edo gradu baliokidea.

LAUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUAREN DISEINUA ETA PROBEN BALIOESPENA:

1. FASEA: EZAGUTZA ESPEZIFIKOAK EBALUATZEA:

Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa (GAI – EZ GAI).

- Lan kontratazioaren ezagutza fidagarria.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren RED sistema. SILTRA softwarea: kotizazioa, afiliazioa, GSINeko datuak eta ordaindutako ordainsari kontzeptuak.
- Nomina: definizioa, kontzeptuak eta egiteko prozedura.
- Nominen aplikazio informatikoak.
- Berdintasunaren arloko oinarritzko araudia.
- Lan, sindikatu eta negoziazio kolektiboaren arloetako legeria.
- Honako plan hauen diseinua, ezarpena eta jarraipena:
 - Prestakuntza.
 - Jardunaren ebaluazioa.
 - Berdintasuna.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Pertsonen garapena.
- Komunikazioa.
- Euskara.

Zinpeko adierazpen bidez egiaztatzea goian adierazitako jakintza espezifikoak dituela.

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.

2. FASEA: MEREZIMENDUEN BALORAZIOA (30 puntu geh.):

A) Bete beharreko eginkizunekin lotura duten titulazioak (10 puntu gehienez):

- Lan Zientzietako lizentziatura, Lan Harremanetako eta Giza Baliabideetako gradua edo baliokidea: 10 puntu.
- Giza Baliabideetako masterra, gutxienez 60 ECTS krediturekin: 10 puntu.
- Giza baliabideetako unibertsitate-aditua edo unibertsitate tituluak, gutxienez 15 ECTS krediturekin: 5 puntu.

B) Hizkuntzak (4 puntu)

B.1) Hizkuntza: Euskara (2 puntu, gehienez):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeaz azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
 - B1: **0,5 puntu.**
 - B2: **1 puntu.**
 - C1: **1,5 puntu.**
 - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila altuenekoa bakarrik balioetsiko da.

B.2) Hizkuntza: Ingelesa (2 puntu, gehienez):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeaz azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
 - B1: **0,5 puntu.**





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- B2: **1 puntu.**
- C1: **1,5 puntu.**
- C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila altuenekoa bakarrik balioetsiko da.

C) Esperientzia (geh. 16 puntu):

- CV, curriculum memoria eta lan bizitzaren txosten eguneratuaren bidezko egiaztapena.

2 urtetik gorako esperientzia azken 4 urteetan, lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunak bete dituen lanpostuetan.	- Oso egoki betetzen du: 16 puntu. - Nahiko egoki betetzen du: 12 puntu. - Egoki betetzen du: 8 puntu. - Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: 4 puntu. - Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka: 0 puntu.
Urtebete baino gehiagoko esperientzia azken 4 urteetan, lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunak bete dituen lanpostuetan, sektore publikoko erakunderen batek zuzenean kontratatuta.	- Oso egoki betetzen du: 16 puntu. - Nahiko egoki betetzen du: 12 puntu. - Egoki betetzen du: 8 puntu. - Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: 4 puntu. - Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka: 0 puntu.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Balorazioa egiteko:

Hau iritziko da:	Lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunen ehuneko hau modu frogagarrian islatzen bada:
Oso egoki betetzen du	% 100
Nahiko egoki betetzen du	> % 66 eta < % 100
Egoki betetzen du	> % 33 eta <= % 66
Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka	> % 0 eta <= % 33
Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka	% 0

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.

Merezimenduen baremoetan, lanbide esperientziaren ondorioetarako, honako hauek balioetsiko dira: hautagaiak ahaideak zaintzeko edo genero indarkeriagatik eszedentzian egon diren denbora; amatasuna eta aitatasuna babesteko edo erantzukizuna partekatuz norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko xedea duten lanaldi murrizketei edo baimenei egotzi ahal zaien denbora, eta emakume enplegatu publikoek genero indarkeriagatik baimenak erabili dituzten denbora.

3. FASEA: EZAGUTZA TEKNIKOEN PROBAK ETA LANPOSTUAREN EZAUGARRIETARAKO EGOKITASUN PROBA PSIKOMETRIKOAK

- **Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa (GAI – EZ GAI).**
- 1. fasean gaitzat jo diren eta 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten lau pertsoneri egingo zaizkie probak.
- Proba psikometrikoak:
 - Izangaiek proba bat edo proba batzuk egin beharko dituzte lanpostuarekiko eta gauzatu beharreko eginkizunekiko egokitasuna balioesteko xedez.
 - Qualis Consultores de Talento SLk txosten osatu bat igorriko du 4. faserako proposatutako hautagai bakoitzaren inguruan.
- Ezagutza teknikoaren proba:
 - Ariketaren xedea hauxe izango da: ezarritako denboran, galdetegi bati idatziz erantzutea (aukera anitzeko erantzunak).





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Ariketa hau zuzentzean, erantzun zuzenen kopuruari akatsen kopuruaren heren bat kenduko zaio ($E = Z-A/3$). Erantzun gabeko galderek ez dute zigorrik izango. Azken balioespena ehunenetan moztuko da.¹²
- Balorazioa GAI izango da ezagutza teknikoen proban 5 puntu edo gehiago lortu eta proba psikometrikoetan gai izan direnentzat.
- Balorazioa EZ GAI izango da ezagutza teknikoen proban 5 puntu baino gutxiago lortu eta/edo proba psikometrikoetan ez gai izan direnentzat.
- Gaitzat jotzen diren izangaiek aurrez aurreko elkarrizketa egin beharko dute AKSAn, hautaketa prozesu honetarako eratu den hautaketa epaimahaiko kideen aurrean.
- Inor EZ GAI gertatuz gero edo uko eginez gero, probak egingo zaizkie hurrengo puntuazio onenak dituzten pertsonei, eta hurrengo fasera (4.era) pasatuko dira gaitzat jo eta lau puntuazio onenak dituztenak.

4. FASEA: GAITASUNEI ETA GAITASUN TEKNIKOARI BURUZKO ELKARRIZKETA (20 puntu, geh.)

- **Nahitaezkoa** da.
- 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten lau pertsonei eta 3. fasean gaitzat jo direnei egingo zaie elkarrizketa pertsonala.
- Elkarrizketa hautaketa epaimahaiko kideek egingo dute AKSA sozietatearen egoitzan, eta ardatz izango ditu lanpostuko gaitasun orokorrak, zeharkakoak eta teknikoak.
- Elkarrizketak bi zati izango ditu:
 - **Gaitasunena:** Elkarrizketa honetan honako gaitasun hauek balioetsiko dira: (14 puntu, gehienez)
 - Frustrazioari aurre egiteko eta presiopean lan egiteko gaitasuna.
 - Autonomia.
 - Ekimena, emaitzetarako orientazioa, erabakitze gaitasuna eta aztertze gaitasuna.
 - Talde lana
 - Asertibotasuna eta malgutasuna.

V= ariketen balorazioa, A= ondo erantzundako galderak, E = gaizki erantzundako galderak.
Moztea da hamarrenak ezabatzea borobiltzerik gabe, dezimal jakin batetik aurrera. AKSaren kasuan, bigarren dezimala da hori. Esate baterako, 4,171 eta 4,179 moztuta, 4,17 geratzen da.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Lanarekin inplikatzeari.
- Negoziazioa eta gatazka konpontzea.

Fase honetako puntuazioa izango da eskala honen arabera aztertutako gaitasunetako bakoitzean lortutako puntuazioen batura:

- Gaitasunik ez: 0 puntu.
- Gaitasuna garatzeko fasean: puntu 1.
- Gaitasun maila bikaina: 2 puntu.

- **Teknikoa:** Elkarriketa honetan, ondoko ezagutza hauek baloratuko dira: (gehienez 6 puntu)

- Arlo hauetako oinarritzko gaiak:

- Lan arloko, sindikatuko eta negozio kolektiboko legeria.
- Lan kontratazioa.
- Nominak, gizarte aseguruak, RED sistema, etab.
- Lan eskubideak eta eginbeharrak.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna.
- Laneko arriskuen prebentzioa.

- Gaitasunei eta gaitasun teknikoari buruzko elkarriketaren akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, hautaketa epaimahaiko kide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.
- Gutxieneko atalase hauek ezartzen dira:
 - Gaitasunen zatia: 7 puntu.
 - Zati teknikoak: 3 puntu.
- Lau hautagaietakoren bat aurreko puntuan eskatutako gutxieneko atalaseetara iristen ez bada, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, eta gainerako pertsonak jarraituko dute.
- Fase hori amaitu ondoren gai diren pertsonak hiru baino gutxiago badira, hautaketa epaimahaiak hurrengo hautagaira edo hautagaietara joko du, gai diren gutxienez hiru hautagai izan arte.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

FASE BAKOITZEKO PUNTUAZIOEN LABURPENA:

1. FASEA	2. FASEA	3. FASEA	4. FASEA	GUZTIRA
EG/G	30	EG/G	20	50

